

Ikas-egoera: ZABORRONTZIAK PINTATZERA

Ikasmaila: DBH 3. Maila	Inplikaturiko ikasgaiak: Matematika
Saio kopurua: Taldekideen arabera 3-4 saio izan daitezke	
1. Jarduera: ikas-egoeraren azalpena. Gelako kideak taldeka banatuko zarete, 3-4ko taldeak eginez, eta erronka bat proposatuko zaizue: <i>ikastetxeko zaborrontziak pintatzeko lehiaketa irabaztea.</i> Horretarako, zeregin batzuk izango dituzue. Amaieran, aurrekonturik zehatzena egiten duen taldeari emango zaio lan lan hori burutzeko txartela.	
2. Jarduera: zaborrontziak behatu. Ikastetxean zehar hainbat zaborrontzi ditugu, birziklatzea bultzatzeko lau kolore ezberdinetakoak: horia, urdina, marroia eta grisa. Denak neurri berdinekoak dira. Zaborrontziak kontatu beharko dituzue, eta neurriak hartu.	
3. Jarduera : azalerak kalkulatzeko. Zaborrontziak poliedro itxurakoak direla ohartuko zineten, ezta? Bada, Geogebra-aren laguntzaz, zaborrontzien azalerak kalkulatu beharko dituzue. Irudien garapena egitea ezinbestekoa izango da. Erabili atxikitako baliabideak.	
4. Jarduera: aurrekontua prestatu Zaborrontzi hauentzat pintura egokia hautatu emandako esteketan eta aurrekontu bat prestatu.	